www.erein.eus Tolosa Etorbidea, 107 - 20018 Donostia / 943 218 300

*Liburu honek Bilboko Udalak antolatutako*
*Miguel de Unamuno XX. Saiakera Lehiaketaren euskarazko saria jaso du.*






## Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Oilarra kukuruka**
Egilea / Autor: **Xipri Arbelbide**
Saila / Colección: Saiopaperak - Pentsamendua eta gizartea, 32
ISBN / EAN: 978-84-9109-653-5
Salneurria / Precio: 18 € (BEZ barne – IVA incluido)
Orri kopurua / N° páginas: 232
Formatua / Formato: Rustika / Rústica - 14 x 22,5 cm
Materia: Saiakera - Ensayo

## Lana / La obra

Badu mende erdi bat baino gehiago Eliza gaizki doala. Hemen. Gure apezpikuak atzerakoiak direlako? Izan ditugu goi mailakoak ere, Añoveros, Oscar Romero eta beste. Hogei mendez krisiz krisi handitu da Eliza.

Amurizak kantatzen zuen «moztu obispo kotxe luzeak». Gaur egun, zenbat kotxe labur? Mende erdi batez aberastu gara. Oinez edo astoz ibilki zirenak, orain hegazkinez. Ongizateak gaitzeko punpa egin du. Beti goiti doa eta gaurko fedea, mugarik gabeko gorapenean dago. Hor bilatzen dugu zoriona. Ahantzirik gure lurra mugatua dela. Gorapen hori ere bai beraz. Utzi dugu fedea, sinetsi marxismoan, gero kontsumismoan… hondamendirat eramaten gaituela. Eliza eta mundua elkarrekin. Gure haurrei ezin bizizko lur bat utziko diegu. Guk... lurtarren % 20 egiten dugun aberatsok. Beti eta gehiago behar dugunok.

Ongizatea ez da behin ere, gaur egun aberastasunaz beste ametsik ez daukatenen artean bezain gora izan. Eta beti gehiagoren gose. Ur gazia edaten dugu zorion egarria asetzeko. Egarria handitzen duen ura. Lurtarren % 80en bizkar.

Sinestea beheiti doa aberastasuna eta ongizatea jainko dauzkatenen artean. Beste % 80 haiek ez gaituzte heriotzarat eramaten. Berekin daukate bizia. Baina, haiek ere gurekin hiltzerat kondenatzen ditugu bide honi jarraikiz.

Elkar maitatzean dagoela zoriona erran zigun Hark balu arrazoi? Beharrik, badira oraino ere hori sinesten dutenak. Hasiz hemen berean.

9 788491 096535